

ZORTZIKOAK
(Shelley)

When the lamp is shatter'd...

Kruselua puskatuz gero,
argia illik datza autsean;
ostarku-ospea da itzaltzen,
odeia zabal danean;
doiñu gozoak eztira oroi,
lauta zatitu ostean;
laster aanzten maite-solasak,
expanak itz egitean.

Dizditz-errainu ta musika
kruseluz ta lautz aitzen;
biotz-anotsak ez, arnas ixil
ba'da, kantarik biurtzen;
gela zuzituz aizeak lez,
lelo itsak bai, ez abesik,
din-dan itxas-mutil illari
ala ta ugin illetarik.

Biotzak naastu diranean,
len-suak abi eiña izten;
len bere ebana jasateko,
aula dauska begiz joten.
O, Maite, emengo gauzaen
aula negar oi dozuna!,
kuma, suete ta zuputzat
zelan zuk autu aulena?

Aren irrikak zaitu igiko
zais lez goian ekaitzak;
euzkiak lez zeru baltzetik,
muzin adimen argiak.
Irolgo yatzuz abi-agak,
t'osto-jausi ipar eltzean,
arrano-suetek uts zaitu
itxiko irrien mendean.

Euskeraz: Igots'ek